

Gure zerbitzua ia edozein pertsonara bidera dezakegu pertsona guztiak edo ia guztiak haien janaria supermerkatuan erosten dutelako; izan ere, ulertzen dugu diru asko duten pertsonak ez dituztela gure produktuak erosiko haien egoera kontuan hartuta. Beste aldetik, gure bezero ohikoenak familia ugariako pertsonak eta diru askorik ez daukaten pertsonak izango dira. Adinaren inguruan, adina guztietako pertsonak izango lirerateke, baina normalean pentsio baxuko pertsonak eta pertsona gazteak izango dira. Bezero mota hau aukeratu dugu eskariari begira hauek handiena eskainiko digutelako, kalitatezko eta prezio baxuko produktuak nahi dituzte eta.



Era berean, hauen sentimenduak bai alaiak bai tristeak izan daitezke, baina gure denda sartzean gure ustez bakarrik alaitasuna egongo da kalitatezko bizitza bat izan ahal izango dutelako. Hauek bilatzen dute bizi-baldintza onena izatea haien soldatekin; horretarako, gure denda aukera on bat da.



Irudi hau bizi-baldintza on bat izateko beharrezkoak diren jarduerak irudikatzen ditu eta guk gure zerbitzuekin asetuko ditugunak batez ere bihotza eta dirua irudikatzen dituzte.

Gure produktuak erosiko dituzten pertsonak asko izaten dira, baina gehien batean oso antzekoak izango dira hauek. Horregatik, marketing kontzentratu bat egingo dugu gehien batean gero eta pertsona gehiago behar izango dituztelako gure zerbitzuak.

Lehen esan dugun bezala gure zerbitzuak familia ugariako eta diru gutxiko pertsonentzat bideratuta egongo da eta adin guztiko pertsonak daude hauen barruan.

